

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako enpresek nazioartekotzeko behar dituzten laguntzeko zerbitzu eta tresna guztiak dituen gida berri bat eskura dute

Argitalpena Nafarroako Gobernuak eta Merkataritzako Estatuko Idazkaritzak elkarrekin egin dute

Jueves, 11 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak Merkataritzako Estatuko Idazkaritzarekin, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren mende dagoena, elkarlanean aritu da [Nazioartekotzeko Zerbitzuen Gida](#) egiteko orduan. Gida horren helburua enpresa nafarrei laguntza ematea da kanpoko merkatuetara irteteko garaian. [Nafarroako Nazioartekotze Planaren](#) eta [ICEXen](#) webguneetan eskuragarri daude kontsultatu eta deskargatu ahal izateko.



Gidaren azala.

Gida horrek Nafarroatik eskaintzen diren nazioartekotzeko berriazko zerbitzuak jasotzen ditu, eta jada katalogo nazionalan ageri zirenei gehitzen zaizkie, [Merkataritzako Estatuko Idazkaritzak](#) (SEC) emandakoak eta haren mende dauden erakundeek: [ICEX](#), [España Expansión Exterior](#) eta [Cofidesek](#), esaterako, Espainiako enpresak kanpora ateratzen laguntzeko. Gainera, [Kreditu Ofizialaren Institutua](#) (ICO) nazioartekotzeko laguntza-ildoak jasota daude, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari atxikita dagoena.

Gidaren xedea da enpresek eskura dauden zerbitzu guztiak izan ditzaten, informazioaren sakabanaketa saihestea eta nazioartekotzea laguntzen duten programa guztien ikuspegi orokorra ematea.

Argitalpenak honako hauei erantzuten die: kanpoko negozio potentzialak nola identifikatu, finantzaketa nola lortu, merkataritza-arriskuak nola ziurtatu, tokiko bazkideak nola aurkitu, doako aholkularitza pertsonalizatua nola eskuratu, edo kanpoko inbertsioa nola erakarri eta bazkideak bilatu Espainiako proiektuetarako. Helburua galdera horiei erantzuna ematea da eta arrakasta-bermeak gainditzea enpresa nafarren nazioartekotze-estrategian.